



Ohiko galderak: Osakidetzako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiko mailak esleitzeko behin-behineko ebazpena

Zer jasotzen da lanbide-garapeneko mailen behin-behineko ebazpenean? Nori eragiten dio?

Deialdiaren 1208/2022 Ebazpenaren 5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz (2a apartatua), lanbide-garapeneko behin-behineko ebazpenak aukera ematen die **berrikusteko/zuzentzeko eskaera** egin dutenei eskaera horren emaitza ikusteko.

Era berean, 2019ko urtarrilaren 1ean zerbitzu aktiboan zeuden eta data horren ostean heriotza, erretiroa edo ezintasun iraunkorra dela-eta baja eman zaienei **ofizioz egindako eskaerak** argitaratzen dira, deialdiaren ebazpenaren 2.2. artikuluan adierazitako moduan.

Halaber, akatsak detektatu dira maila esleitzeko proposamen batzuen edukian, eskaera egiteko epean profesionalak **onartutakoetan**. Akats horiek zuzendu egin dira, eta **ofiziozko zuzenketa** horien emaitzak argitaratu.

Behin-behineko ebazpenak, beraz, kolektibo hauei eragiten die:

1. **Berrikusteko/zuzentzeko eskaera** egin dutenak, dela “Eskaeraren aldaketa” motakoa dela “Erreklamaziorako sarbidea” motakoa.
2. **Ofiziozko eskaerak**: batetik, erretiro- edo ezintasun-egoeran daudenei zeinak eskaera egiteko lanbide-garapeneko aplikaziora sartu ez direnak, eta, bestetik, hil egin direnei.
3. Maila-proposamena onartu zutenak, zeintzuei Osakidetzak **ofizioz erroreak zuzendu** baitizkie.

Nola kontsultatzen dira emaitzak?

Interesdunak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanbide-garapenaren aplikazio informatikoan kontsultatu beharko ditu berrikusteko/zuzentzeko eskaeren emaitza, bai eta Osakidetzak ofizioz egindako eskaerena eta berrikuspenena ere. Aplikazioa <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> helbidean dago eskuragarri, intranetean zein Osakidetzaren webgunean.

Behin-behineko ebazpenari ez zaio zerrendarik erantsi, konfidentzialtasunagatik eta datuen babesagatik.

Osakidetzak egindako maila-proposamena onartu bazenuen eskaera egiteko epean:

Lanbide-garapenaren aplikaziora sartu behar duzu eskaeraren egoera zein den egiaztatzeko. Izan ere, kasu espezifiko batzuetan, Osakidetzak ofizioz zuzendu ditu akatsak.

- Aplikaziora sartu (“Eskaerak” erlaitza) eta maila-eskaera **“Onartuta” egoeran** dagoela ikusten baduzu, horrek esan nahi du eskaerak egiteko epean eskuragarri zegoen informazio berbera dagoela eta **ez duzula bestelako ekintzarik egin behar.**

Deialdiaren 1208/2022 Ebazpenaren 5. artikulua araber (1. apartatua), eskatzaileak adierazten badu onartzen duela Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egindako maila-proposamena, ulertuko da esleipen hori behin betikoa dela, eta mailen behin betiko ebazpenean argitaratuko da.

Behin betiko ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- Aplikaziora sartu (“Eskaerak” erlaitza) eta eskaera **“Ofiziozko berrikuspena” egoeran** eta **“Behin-behineko ebazpena”** egoeran dagoela ikusten baduzu, horrek esan nahi du Osakidetzak ofizioz zuzendu dituela akatsak.



Osakidetzak akatsak ofizioz zuzendu baditu:


“Eskaerak” erlaintzera sartu eta hau ikusiko duzu:

- **“Ofiziozko berrikuspena” egoeran** dagoen eskaera bat, hau da, profesional bakoitzak onartutako proposamena.
- **“Behin-behineko ebazpena”** egoeran dagoen eskaera bat, hau da, Osakidetzak akatsak ofizioz zuzendu ondoren lortzen den proposamena.

“Behin-behineko ebazpena” egoeran dagoen proposamenaren gainean kurtsorea jarrita, “Eskatu berrikuspena/zuzenketa” botoia aktibatuko da, eskatzaileak erreklamazio bat egin ahal izan dezan.

Berrikusteko/Zuzentzeko eskaera egin baduzu:

Lanbide-garapenaren aplikaziora sartu eta deialdira sartzeko botoia sakatu ostean, **“Erreklamazioen kudeaketa”** aukera sakatu behar da, pantailaren goiko eskuinaldean.



“Erreklamazioen kudeaketa” pantailan, **berrikusteko/zuzentzeko** egindako **eskaera** ikus daiteke (“Berrikusi edo zuzendu beharreko datuak” erlaintza), baita Osakidetzak eskera hori onartu edo ukatu duen eta erabaki horren arrazioa ere (“Ebazpenaren datuak” erlaintza).

Pantaila nagusian 3 erlaintz daude: Egoerari buruzko datuak, Emandako zerbitzuak eta Eskaerak. **“Eskaerak”** erlaintzera sartuz gero, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen diren egiaztatu ahal izango da, bai eta lanbide-garapeneko mailaren proposamena ere, berrikusteko/zuzentzeko eskaera kudeatu ondoren.

Proposamenaren **egoera “Behin-behineko ebazpena”** da. Zuzenketa aldekoa bada, ez duzu bestelako ekintzarik egin beharko.

Bestela, eskatzaileak **erreklamazioa** egin ahal izateko, kurtsorea proposamenaren gainean jarri eta “Eskatu berrikuspena/zuzenketa” botoia aktibatuko da.

Osakidetzak ofiziozko eskaera bat egin badu:

Lanbide-garapenaren aplikaziora sartu eta deialdian sartzeko botoia sakatu ondoren,

- Pantaila nagusia irekitzen da, non 3 erlaintz dauden: Egoerari buruzko datuak, Emandako zerbitzuak eta Eskaerak.
- **“Eskaerak”** erlaintzera sartuz gero, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen diren egiaztatu ahal izango da, bai eta lanbide-garapeneko mailaren proposamena ere, Osakidetzak ofizioz egindakoa.

Proposamenaren **egoera “Behin-behineko ebazpena”** da. Proposamena aldekoa bada, ez duzu bestelako ekintzarik egin beharko.

Bestela, eskatzaileak **erreklamazioa** egin ahal izateko, kurtsorea proposamenaren gainean jarri eta “Eskatu berrikuspena/zuzenketa” botoia aktibatuko da.

2019ko urtarrilaren 1ean aktibo zeuden eta horren ostean heriotza dela-eta baja eman zuten profesionalen kasuan, legezko jaraunsleek harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoa bat jakinarazi beharko dizkiote Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, deialdi honen prozeduran ezarritako gestioak egin ahal izateko.

Horretarako, lanbide-garapenari buruzko kontsultak egiteko inprimakia erabili beharko dute, Osakidetzako webgunean eskuragarri dagoena:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/profesionalak/-/zerbitzuak-lanbide-garapena/>



Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak:

Erreklamazioak egiteko epea abuztuaren 16tik irailaren 7ra arte, da.

Lanbide-garapenaren aplikazio informatikoaren bidez egiten dira erreklamazioak:

- Proposamenaren **egoera** “Behin-behineko ebazpena” bada: proposamenaren gainean kurtsoa jarrita, **“Eskatu berrikuspena/zuzenketa”** botoia aktibatuko da, **erreklamazio** bat egin ahal izateko. “Eskatu berrikuspena/zuzenketa” botoia sakatuta, alegazioak idatzi eta, behar izanez gero, dokumentuak gehitzeko pantaila espezifikoa agertuko da.
- Ez bada maila eskatzeko proposamenik agertzen, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen ez direlako, **“Eskatu berrikuspena/zuzenketa”** botoia ere erabilgarri egongo da. Botoi hori sakatuta, alegazioak idatzi eta, behar izanez gero, dokumentuak gehitzeko pantaila espezifikoa agertuko da.

Ezin bazara sartu lanbide-garapenaren aplikaziora, lanbide-garapenari buruzko kontsultak egiteko formularioa erabil dezakezu erreklamazioa egiteko. Formulario hori lanbide-garapenaren orrian dago eskuragarri, intranetean zein Osakidetzaren webgunean.

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/profesionalak/-/zerbitzuak-lanbide-garapena/>